

BALOREZKO PROPOSAMENA:

Gaur egungo gizarteko arazo nagusietako bat da emakumeek jasaten duten tratatu txar eta abusiboa. Azken urteotan, eraso hauen eragileetako bat, drogen erabilpena bihurtu da. Droga hauen ondorioz, emakumeak nahasi eta euren buruen jabe ez izatera iristen dira, abusua erraztuz. Erasotzaileek, biktimen arreta gabeko momentuak aprobetxatzen dituzte drogak edarrietan sartzeko eta emakumeek ez dute baliabide nahikorik hori gertatu dela jakiteko. Tamalez, gehiegikeria hauek sufritzen dituzten biktimen kopurua areagotuz doa, erabilitako drogak geroz eta eskuragarriagoak bihurtu direlako. Horien artean aurki dezakegu burundanga izenekoak, modu eta kantitate txikian erabiliz gero, zorabioak ekiditeko helburua duena, aldiz, helburu deliktiboetarako erabiltzen delako da ezaguna. Hori hobetze aldera, gure taldeak eraso horiek ekiditeko produktu bat proposatzen dugu, edarira isuritako sustantziak antzematen dituen azkazaletako esmaltea.

Produkturen erabilera sinplea eta erraza izango da; lehenik, esmaltea azkazal gainean aplikatu eta denbora tarte bat utzi lehertzeko. Aldi berean, produktua bertan murgilduko da propietate guztiak uztartuz, bere helburua bete dezan. Ondoren, edarira sustantziren bat isurita daukazula susmatuz gero, behatza bertan barneratu eta denbora pixka bat pasa ostean, azkazaletako esmaltearen kolore aldaketari itxaron. Kontuan hartuz, azkazal bakoitzak erabilera bat eta bakarra izango duela.